

**TOKIKO GOBERNU BATZORDEA ERATZEKO 2019KO
GARAGARRILAREN 15EAN EGINDAKO BILKURAREN AKTA**

LEHENIK.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.b) artikulua eta Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 35 eta 52 artikulua kontuan izanik, alkate andreak, garagarrilaren 8ko 244/2019 dekretuaren bidez, zinegotzi honeek Tokiko Gobernu Batzordeko kide izendatzea erabagi eban: ***Irati Abio Muruaga, Josu Garai Vara eta Javier Miguel Alvarado*** (korporazioa legez osotzen daberen zinegotzien herenak).

Dekretu horretan azaltzen da ebazpen hori 2019ko garagarrilaren 12tik aurrera sartuko dala indarrean, beti be Udaltzazak, 2019ko garagarrilaren 11ko osoko bilkuran, Tokiko Gobernu Batzordea sortzea erabagiten badau.

BIGARRENIK.- Udaltzazak, 2019ko garagarrilaren 11ko osoko bilkuran Tokiko Gobernu Batzordea sortzea erabagi eban, Beraz, organo hori hiru zinegotziok eta Amets Jauregizar Baraiazarra alkate andreak osotzen dabe.

Hori horrela izanik, Tokiko Gobernu Batzordea eratzeko bilkura egiteko asmoz, 2019ko uztailaren 15ean, goizeko 09:30an, udaleko areto nagusian batu egin dira zinegotzi honeek: ***Amets Jauregizar Baraiazarra, Irati Abio Muruaga, Josu Garai Vara eta Javier Miguel Alvarado.***

Idazkaria: Juan Francisco Eiguren Kortazar, Bakioko Udaleko idazkari-kontuhartzailea.

Idazkari jaunak batzarrari hasikerea emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu dau, izan be, kide guztiak bertaratu dira.

Ostean, Alkate andreak, dino Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 112. artikuluan azaldutakoa betearazteko, Tokiko Gobernu Batzordea eratzeari ekin jakola. Ondorioz, eratuta geratu da.

Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, batzorde horren zeregina hauxe izango da: Alkateari laguntza eta aholkularitza emotea, azken honek daukazan eskurantzak erabilteko orduan, eta beti be Alkatezaz edo/eta Udaltzaz eskuordetu ahal deutsozan eskumenez gain. Hori dala eta, batzorde horrek alkateak hartutako erabagi guztien barri izan beharko dau.

Horrenbestez, Tokiko Gobernu Batzordea eratu dan ezkerro, gai horrerri jagokonez helburua amaitutzat emon da 09:40ean, eta hau guztia kontuan hartuz egin da akta hau eta bertaratutako guztiak sinatu dabe. Beraz, nik, idazkari jaunak, horrela egiaztatzen dot..

Ametz Jauregizar Baraiazarra



Josu Garai Vara



Javier Miguel Alvarado



Irati Abio Muruaga



Juan Francisco Eiguren

